

Zipri Urkiza Artetxebarria *Mendata, Bizkaia (1945)*

Aurkibidea

Biografia

Zipri 1945ean jaio zen Albiz auzoko Gorontze baserrian. Aita bertakoa zuen eta ama Munitibarreko Totorika auzoko Larrina baserrikoa. Bost neba-arreben artean mutil bakarra izan zen. 12 urtera arte joan zen Albizko eskolara partikular joan aurretik. 16 urte zituela, Mendatara ura ekartzeko ubideetan hasi zen lanean, dena eskuz egiten zen garaian. Soldadutza ostean Ameriketara joan zen artzain, Pete Zenarruza ugazaba zuela. Bost urtez Ameriketara egin eta Eibarrera joan zen lanera. Bizitokia ere bertan ezarri zuten, nahiz eta ia egunero Albizen egon. Umetako eta gaztetako ibilerak, monagilo lanak, Ameriketako bizimodua, baserriko beharrak... izan genituen berbagai, besteak beste.

Zintak

MDT-014

- **Proiektua:** Mendatako ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Data:** 2019-08-22

- **Iraupena:** 73 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Unamuno, Arianne

Pasarteak

1. Albizko eskola, Bizkaiko lehena

- **Erref:** MDT-014/002
- **Iraupena:** 0:01:01. **Hasi:** 00:01:08. **Bukatu:** 00:02:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Albiz auzoan bertan lehen udaletxea egon zela entzuna du, baita Albizko eskola Bizkaiko lehenengoa izan zela ere. Aititak eta beste batzuek eraiki zutela dio.

2. Bilboko maistraren zigorrak

- **Erref:** MDT-014/004
- **Iraupena:** 0:02:01. **Hasi:** 00:03:58. **Bukatu:** 00:05:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorrak

Laburpena:

Bandera atera eta "Cara al sol" abestu behar izaten zuten. Bilbotik etortzen zen maistra. Euskaraz egitearren zigortu egiten zituen. Makila batekin edo egurrezko metroarekin jotzen zituen. Errespetua baino beldurra izaten zutela dio.

3. Pilotan egitera Mendatarara

- **Erref:** MDT-014/005
- **Iraupena:** 0:02:01. **Hasi:** 00:05:59. **Bukatu:** 00:08:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak
- Aisia » Kirola » Pilota

Laburpena:

Aitaren bizikleta hartuta, lagunekin joaten zen Mendatarara, eskola partikularretara. Pilotan egiten zuten hango frontoian.

4. Eliz-mutil zazpi urtez

- **Erref:** MDT-014/006
- **Iraupena:** 0:03:24. **Hasi:** 00:08:00. **Bukatu:** 00:11:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

Igorreko Txomin apaizarekin Oizera joaten zen eliz-mutil. Zazpi urtez ibili zen apaizaren laguntzaile. Eskolatik irten eta dotrinara joan beharra izaten zuten. Don Juan, Don Jose eta beste apaiz bat aipatzen ditu. Jendearentzat elizako kontuak eskola baino garrantzitsuagoak zirela dio.

5. Albizko abadea eta neskamea

- **Erref:** MDT-014/007
- **Iraupena:** 0:00:53. **Hasi:** 00:11:24. **Bukatu:** 00:12:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

Albiz auzoko abadeak abade-etxea zeukan, neskame eta guzti. Pasarte barregarria kontaktzen du.

6. Baserrietara ura ekartzeko lanetan

- **Erref:** MDT-014/008
- **Iraupena:** 0:03:39. **Hasi:** 00:12:17. **Bukatu:** 00:15:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura

Laburpena:

Senideen artean mutil bakarra zen eta bera egoten zen aita-amekin. Arrebak neskame joan ziren. Ura eta argindarra berandu izan zituzten. Ura ekartzeko egin zituzten lanak kontaktzen ditu. Dena eskuz egiten zuten. Soldata zenbatekoa zen azaltzen du.

7. Ameriketara gazte asko joan zen

- **Erref:** MDT-014/009
- **Iraupena:** 0:01:51. **Hasi:** 00:15:56. **Bukatu:** 00:17:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Diaspora » Disporara bidaia » Diasporara joateko arrazoiak
- Diaspora » Euskaldunak diasporan » Euskaldunak diasporan

Laburpena:

<p>Australiara edo Ameriketara jende asko joan zen Mendatetik eta inguruko herrietatik. Batzuk bueltatu ziren eta beste batzuk ez. Han egonda, hemen nahi izaten dela dio, eta hemen egonda, han.</p>

8. Ameriketara bidaia, trenez eta hegazkinez

- **Erref:** MDT-014/010
- **Iraupena:** 0:03:44. **Hasi:** 00:17:47. **Bukatu:** 00:21:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Diaspora » Disporara bidaia » Diasporara bidaia

Laburpena:

<p>Soldadutza egin ostean, Ameriketara joan zen. Paperak egin, Bilbon trena hartu eta Madrilera joan zen, beste hamabost lagunekin. Hegazkinez joan ziren.</p>

9. Artzain Ameriketara, Pete Zenarruzarekin

- **Erref:** MDT-014/011
- **Iraupena:** 0:02:34. **Hasi:** 00:21:31. **Bukatu:** 00:24:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Diaspora » Lana diasporan » Artzainak eta kanperoen diasporan
- Diaspora » Euskaldunak diasporan » Euskaldunak diasporan
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

<p>Ugazaba Pete Zenarruza izan zuen. Hamazazpi lagun ziren lanean, denak Mendata ingurukoak. Etxean moduan egon zirela dio. Hamabi mila ardi zeuzkaten. Nondik nora ibiltzen ziren kontatzen du.</p>

10. Neguan lan handia bildotsekin

- **Erref:** MDT-014/012
- **Iraupena:** 0:02:23. **Hasi:** 00:24:05. **Bukatu:** 00:26:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Diaspora » Lana diasporan » Artzainak eta kanperoen diasporan
- Diaspora » Ohiturak eta bizimodua diasporan » Familia eta harremanak diasporan

Laburpena:

<p>AEBn artzain egon zeneko kontuak. Neguan lan handia izaten zuten. Bildotsa zen saltzen zuten bakarra. Zenarruzatarrekin etxeko egon zirela dio. Bakarrik zein taldean egiten zuten lan.</p>

11. Ameriketako desertu itzeletan

- **Erref:** MDT-014/015
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 00:29:19. **Bukatu:** 00:31:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Diaspora » Lana diasporan » Artzainak eta kanperoen diasporan
- Diaspora » Euskaldunak diasporan » Euskaldun sentimendua

- Diaspora » Ohiturak eta bizimodua diasporan » Aisialdia diasporan
- Diaspora » Ohiturak eta bizimodua diasporan » Familia eta harremanak diasporan

Laburpena:

<p>Euskal Jaiak egiten zirenean, milaka euskaldun batzen ziren AEBn. Herri kirolak egiten ziren. Desertuak itzelak izaten zirela dio, behe-lainoarekin galtzeko modukoak. Zaldiari eta txakurrari esker egiten zutela aurrera esaten du.</p>

12. Ardiekin Estatu Batuetako indigenen erreserban

- **Erref:** MDT-014/016
- **Iraupena:** 0:02:24. **Hasi:** 00:31:24. **Bukatu:** 00:33:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Diaspora » Lana diasporan » Artzainak eta kanperoak diasporan

Laburpena:

<p>Washingtonen (Estatu Batuetan) indigenen erreserban izaten zituzten ardiak hilabete batzuetan.</p>

13. Ameriketako artzainen arropa eta "karro-kotxea"

- **Erref:** MDT-014/017
- **Iraupena:** 0:04:02. **Hasi:** 00:33:48. **Bukatu:** 00:37:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Diaspora » Lana diasporan » Artzainak eta kanperoak diasporan

Laburpena:

<p>Praka bakeroak janzten zituzten. Oinetakoak oso onak izaten zirela dio. Idahon hotz handia egiten zuela dio eta Kalifornian, ostera, epel. "Karro-kotxea" zelakoa zen kontatzen du.</p>

14. Bildotsak zenbatu eta pisatu

- **Erref:** MDT-014/018
- **Iraupena:** 0:04:31. **Hasi:** 00:37:50. **Bukatu:** 00:42:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Diaspora » Lana diasporan » Artzainak eta kanperoak diasporan

Laburpena:

<p>Kalifornian uzta handia izaten zen. Otsailaren bukaeran jakiten zuten zenbat bildots lortu zituzten. Mexikarrak arduratzen ziren ardiei ilea mozten. Bildotsak kanpora saltzen zituzten. Lehenengo pisatu egiten zituzten, denak batera, kamioia bera pisatuta.</p>

15. Ameriketako artzain, diru asko denbora gutxian

- **Erref:** MDT-014/019

- **Iraupena:** 0:02:25. **Hasi:** 00:42:21. **Bukatu:** 00:44:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Diaspora » Lana diasporan » Artzainak eta kanperoak diasporan

Laburpena:

<p>Ameriketako artzain egonda, soldata hirurehun dolarrekoa izan zuten hasieran. Diru asko egiten zuten denbora gutxian. Bost urte egin zituen han.</p>

16. Hartzak, pumak eta koioteak, Ameriketako artzainen etsai

- **Erref:** MDT-014/020
- **Iraupena:** 0:03:08. **Hasi:** 00:44:46. **Bukatu:** 00:47:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Diaspora » Lana diasporan » Artzainak eta kanperoak diasporan
- Natura » Fauna » Basoko animaliak

Laburpena:

<p>Hartzak eta pumak ("cougar" ingelesez) ziren piztiarik txarrenak. Hartzak hildako ardia edo bildotsa jan egiten du. Koioteak hil bai baina jan ez ditu egiten. Gatz asko behar izaten dute ardiek han.</p>

17. Pumak arriskutsuak ziren Ameriketako

- **Erref:** MDT-014/021
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:47:54. **Bukatu:** 00:49:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Diaspora » Lana diasporan » Artzainak eta kanperoak diasporan
- Natura » Fauna » Basoko animaliak

Laburpena:

<p>Pumak ("cougar" ingelesez) zuzaitzetan gora joanda ibiltzen ziren. Tiroa jo eta zaurituz gero, artzainari egiten zieten eraso.</p>

18. Kriskitin-sugea Ameriketako

- **Erref:** MDT-014/022
- **Iraupena:** 0:01:24. **Hasi:** 00:49:09. **Bukatu:** 00:50:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Diaspora » Lana diasporan » Artzainak eta kanperoak diasporan
- Natura » Fauna » Basoko animaliak

Laburpena:

<p>Saien antzeko hegaztiak ez zuten erasotzen bildotsei. Kriskitin-sugeak beldurra ematen zion; zaldiak hots hori entzuten bazuen, geratu egiten zen.</p>

19. Artzainaren laneko askatasuna

- **Erref:** MDT-014/024
- **Iraupena:** 0:02:43. **Hasi:** 00:51:40. **Bukatu:** 00:54:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak

Laburpena:

1964an izena eman zuen Eibarko Alfa lantegian sartzeko, baina ez zuten hartu. Ameriketatik etorri zenean deitu zioten. Artzain ibili zenean, berak antolatzen zuen lana, ugazaba hilabete askoan ez zuelako ikusten.

20. Mendiko artzainen lana Ameriketan

- **Erref:** MDT-014/026
- **Iraupena:** 0:03:50. **Hasi:** 00:57:43. **Bukatu:** 01:01:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Diaspora » Lana diasporan » Artzainak eta kanperoak diasporan

Laburpena:

<p>Ameriketan lankide izan zituen guztiak hilda daudela dio. Mendian lan egiteko, egoten jakitea garrantzitsua dela esaten du. Lana zelakoa den azaltzen du.</p>

21. Ameriketako ardiak eta hango gaixotasunak

- **Erref:** MDT-014/027
- **Iraupena:** 0:02:27. **Hasi:** 01:01:33. **Bukatu:** 01:04:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Diaspora » Lana diasporan » Artzainak eta kanperoak diasporan

Laburpena:

<p>Ameriketako ardi klaseak deskribatzen ditu. Ardiari jatekoa aldatzerakoan, zelaiz aldatzerakoan, kontu handia izan behar izaten zutela dio, bestela puztu eta hil egiten zirelako.</p>

22. Bildotsek bizirauteko moduak

- **Erref:** MDT-014/028
- **Iraupena:** 0:02:57. **Hasi:** 01:04:00. **Bukatu:** 01:06:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Diaspora » Lana diasporan » Artzainak eta kanperoak diasporan

Laburpena:

<p>Artaldean izaten zituzten arazoak kontatzen ditu. Bildotsak ardiz zelan aldatzen zituzten azaltzen du.</p>

23. Tabernan eta erromerian neskekin Ameriketan

- **Erref:** MDT-014/029
- **Iraupena:** 0:04:01. **Hasi:** 01:06:57. **Bukatu:** 01:10:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Diaspora » Lana diasporan » Artzainak eta kanperoak diasporan
- Diaspora » Ohiturak eta bizimodua diasporan » Aisialdia diasporan
- Diaspora » Ohiturak eta bizimodua diasporan » Familia eta harremanak diasporan

Laburpena:

Tabernara joaten ziren, arrantxoan zeudenean. Neskekin hantxe batzen ziren eta neska-laguna ere izan zuen. Oñatin Ameriketara ibilitakoak batzen ziren eta neska-laguna bisitan joan zitzaion lantegira.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-04-12

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com